

Ordizian, **2013ko abenduaren 18a** UDALBATZARRAK **Ohiko bilkura** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

**BERTARATUTAKOAK:**

**LEHENDAKARIA:**

Igor Eguren Izagirre jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Belén Maiza Urrestarazu	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi	BILDU taldea
Juan M <sup>a</sup> .Guereñu Aldasoro	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregui	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	PNV taldea
Bittor Iñaki Bolinaza Alzelai	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE(PSOE) taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :**

Judith Otegi López de Murillas	PNV taldea
--------------------------------	------------

(Alkateak adierazi du deitu diola esateko lan kontua dela eta, ez dela etorriko)

**IDAZKARIA:**

Martin Iparragirre Mujika jn.

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra and.

**BERTARATZEAK ETA IRTEERAK**

**AZTERTUTAKO GAIK**

### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

- 1.- 2013ko azaroak 28ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.
- 2.- 2014 ekitaldirako aurrekontuak.
- 3.- 2014 ekitaldirako Plantila Organikoa.
- 4.- 2014 ekitaldirako Lanpostuen zerrenda.
- 5.- Kredituen transferentzia.
- 6.- N.1-Upabi proiektuari buruzko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea.

### **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:**

#### **GORABEHERAK**

#### **GALDE-ESKEAK**

#### **ORDUTEGIA:**

**HASIERA: 19:00 etan**

**AMAIERA: 20:50etan**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

### **1.- 2013ko azaroaren 28ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea**

#### Proposamena

#### **2013ko azaroaren 28ko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Maiza andrea:

Adierazi du "Garapenerako lankidetzak 2013" puntu barruan "PHAGMA DRÖLMA, TIBETAR HERRIAREKIKO ELKARTASUN ELKARTEARENTZAT" 9.592,5 euroko diru laguntza onartu bazen ere, taldea hau desegin dela eta horren arabera proiektua ere bertan behera geratu dela, eta hurrengo Osoko Bilkurarako ekarriko dela nori eman banatu gabe geratu den kopurua.

#### Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta aipatutako gaia argitu eta gero, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 4)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

### **2.- 2014 ekitaldirako aurrekontuak**

#### Proposamena

Osoko bilkurarako Gaietarako Batzordeak alkate jaunak idatzitako aurrekontu-proiektua aztertu zuen 2013ko abenduaren 11an egindako bilkuran, eta osoko bilkurara eramatea adostu zuen, bertan eztabaidatu eta onartzeko.

AKORDIO PROPOSAMENA

Alkate jaunak idatzitako 2014ko aurrekontu-proiektua onartzea. Proiektuak honako kapituluak ditu laburbilduta:

SARRERAK

KAPITULUA	IZENA	EURO
1	Zuzeneko zergak	2.410.270
2	Zeharkako zergak	140.000
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.643.138
4	Transferentzia arruntak	8.220.776
5	Ondare sarrerak	263.409
6	Inbertsio errealak besterentzea	2.034.098
7	Kapital transferentziak	1.078.000
8	Finantza aktiboen aldakuntzak	45.000
9	Finantza pasiboen aldakuntzak	296.201
<b>GUZTIRA</b>		<b>17.130.892</b>

GASTUAK

KAPITULUA	IZENA	EURO
1	Langileen ordainsariak	4.933.174
2	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea.	5.941.714
3	Interesak	191.585
4	Transferentzia arruntak	1.990.037
6	Inbertsio errealak	2.630.844
7	Kapital transferentziak	30.890
8	Finantza aktiboen aldakuntzak	292.631
9	Finantza pasiboen aldakuntzak	1.120.017
<b>GUZTIRA</b>		<b>17.130.892</b>

Honako aurrekontu hauek bat egitearen ondorio direnak:

UDALAREN BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-	2.410.270	Kap. 1.-	3.913.164
Kap. 2.-	140.000	Kap. 2.-	2.788.412
Kap. 3.-	1.033.700	Kap. 3.-	76.090
Kap. 4.-	6.767.052	Kap. 4.-	3.079.890
Kap. 5.-	40.900		
Kap. 6.-	0	Kap. 6.-	1.530.560
Kap. 7.-	1.078.000	Kap. 7.-	80.665
Kap. 8.-	45.000	Kap. 8.-	45.000
Kap. 9.-	296.201	Kap. 9.-	297.342
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.811.123</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>11.811.123</b>

**“SAN JOSE EGOITZA” ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA**

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	754.312
Kap. 2.-		Kap. 2.-	1.909.168
Kap. 3.-	854.696	Kap. 3.-	
Kap. 4.-	1.799.284	Kap. 4.-	
Kap. 5.-	9.500		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	
Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.663.480</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.663.480</b>

**“HERRI ANTZOKIA” ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA**

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	91.220
Kap. 2.-		Kap. 2.-	81.450
Kap. 3.-	48.900	Kap. 3.-	50
Kap. 4.-	111.820	Kap. 4.-	
Kap. 5.-	12.000		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	4.775
Kap. 7.-	4.775	Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>177.495</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>177.495</b>

**MAJORI KIROLDEGIA SM-ren AURREIKUSPEN BALANTZEA**

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	174.478
Kap. 2.-		Kap. 2.-	1.147.487
Kap. 3.-	705.842	Kap. 3.-	6.000
Kap. 4.-	702.479	Kap. 4.-	70.006
Kap. 5.-	8.950		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	45.000
Kap. 7.-	45.000	Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	19.300
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.462.271</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.462.271</b>

**ORDIZIA LANTZEN SM-ren AURREIKUSPEN BALANTZEA**

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	
Kap. 2.-		Kap. 2.-	15.197

Kap. 3.-		Kap. 3.-	109.445
Kap. 4.-		Kap. 4.-	
Kap. 5.-	192.059		
Kap. 6.-	2.034.098	Kap. 6.-	1.050.509
Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	247.631
Kap. 9.-		Kap. 9.-	803.375
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.226.157</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.226.157</b>

Ondoren idatzi den Aurrekontua Betearazteko Udal Araua onartzea:

### **2014ko AURREKONTUA BETEARAZTEKO OINARRIAK**

1.- 2014ko urteko ekonomi ekitaldian, Ordiziako Udalak bere Aurrekontuaren hasierako kredituen guztizko zenbatekoaren gehienez ere % 1eko abalak eman ditzake. Erakunde autonomoek ezin izango dute hirugarrenen aurrean abalak eman, ezta inolako bermerik hitzartu ere.

2.- Gastuen Aurrekontuko honako kontusail hauek handitu daitezke bakoitzarentzat ezartzen den finantziazioaren arabera.

<b>GASTUAK</b>		<b>SARRERAK</b>	
<b>Partida</b>	<b>Kontzeptua</b>	<b>Partida</b>	<b>Kontzeptua</b>
227.611.00.07	Foru Aldundiak herri-zergak kudeatzeagatikoa	112.01, 112.02, 130.01 eta 130.02	Askotarikoak
227.611.00.09	Nahitaezko dirubilketarako kontratua	392.01 eta 393.01	Askotarikoak
226.222.12.99	Ibilgailuak kentzea	310.05	Ibilgailuak kentzeagatikoa sarrerak
212.222.12.01	Bideko seinaleak mantentzea (pilonak)	399.01	Matxurak eragiten dituztenen sarrerak.

Alkatetzaren dekretu bidez onartuko da kreditua handitzeko espedientea.

3.- Funtzio-multzo beraren barruan egin beharreko kreditu-transferentziak Arlo bakoitzeko ardura duen Delegatuak eskatu beharko ditu, eta Alkate jaunaren dekretu bidez onartu beharko dira.

Kontusailak gaintzen badira, eta egoera horretan dagoen ordezkariak egin beharreko transferentziak egitea proposatzen ez badu, Ogasun Ordezkaritzak egokien irizten dituen kontusailak hartuko ditu.

Funtzio-multzo ezberdinen arteko kreditu-transferentziak Osoko Bilkurari dagozkie. Inbertsioetarako kredituak murriztea ekarriko duten kreditu transferentzien espedienteetarako, Osoko Bilkuraren erabakia beharko da. Gai horretan, Alkate jaunarentzat zehaztutako eskumen berberak izango dituzte Erakunde Autonomoetako buruek.

4.- Kontu-hartzaileak prestatuko du kredituak erabiltzeko espedientearen zirriborroa, horretarako honako faseetan geratu diren gastuei erreparatuko die: abenduaren 31n Baimenduan (B) edo Xedatutakoan (X) zeudenak. Alkate jaunari dagokio espedientea onartzea.

5.- Alkateak kreditu gehigarrien espedienteak onar ditzake, baina beti ere, metatuz gero, diru-sarrera arruntzen aurrekontuaren %5a baino gehiagokoa ez bada.

6.- "Maileguak langileei" 833.121.00.01 kontusaileko kredituak eskuratzeko, interesdunek eskaera egin beharko dute, eta proposatutako eta aurrekontuan jasotako gastua justifikatu beharko dute. Ogasun Ordezkaritzak ebatziko du mailegua ematea bidezkoa den ala ez; oniritzia jasoz gero, alkate jaunaren dekretuz betearaziko da.

7.- Dedikazio eskusiboa duten kargu politikoen eta zinegotzien ordainsariak gutxitu egin dira aurrekontu hau doitu ahal izateko, krisi ekonomikoak kaltetu dituen pertsonetikiko elkartasunean.

8.- Aurrekontuan aurreikusitakoak baino diru-laguntza finalista handiagoak emateko, kopuru berdineko gastu-kredituak gaitu beharko dira dagozkien gastu-partidetan. Alkate jaunak baimenduko du gaitze hori.

9.- Honako hauen inguruko gastuak egiteko:

- Langileak kontratatzea
- Lanak kanpokoekin kontratatzea.
- Mantentze-lan hutsak ez diren obrak edo lanak udal-zerbitzuek beraiek egitea
- Material inbentagarria erostea.

Alkatetzaren dekretu bidezko alde aurretiko onarpena behar izango da, eta aurrez kontu-hartzailearen txostena eskatu beharko da. Alkatetzaren aldeko dekretua jasotzen ez den bitartean, erabat geldituko da gastu-espedientearen tramitazioa.

10.- Bi (2) hilabetean behin kontu-hartzaileak aurrekontu-partiden egoeraren berri emango die ordezkarietzi; horiek behar diren neurriak hartu beharko dituzte onartutako kreditua ez gainditzeko. Erabilgarri dagoen kreditua behar adinakoa ez dela irizten bada, bai aparteko gastuak izan direlako, bai Aurrekontua egiterakoan ezagutzen ez ziren beste premia batzuk daudelako, dagokion Ordezkaritzak kreditu-gehiarri ematea proposatuko du; horretarako, dagokion finantziazioa proposatu beharko du, edo kreditu-soberakina eskatu beharko du, halakorik balego.

11.- Dietak.- Udalaren ordezkariak, Alkateak eta Zinegotziek, eta udal-langileek joan-etorriengatik sortzen zaizkien gastuak kobratzeko eskubidea izango dute, beti ere joan-etorri horiek udalaren eskumenekoak diren gaiak kudeatzeko egiten direnean; horretarako, Korporazioak baimena emana behar du. Gastu horien kopurua honako hau izango da:

Autonomia Erkidego barruko joan-etorria norberaren ibilgailuan, 0,29 euro/km. Gosariak: 6 euro. Bazkaria: 16 euro. Afarria: 16 euro.

Ostatu hartzea: gehienez pertsona/eguneko/ 100 euroko gastua duen hotela.

Ikastaroetara nahiz azoketara joanez gero, bazkari, afari eta ostatu hartzeko ere ezarritako mugak aplikatuko dira. Erakunde arteko harremanengatik aipatu horiek baino gastu handiagok egin behar direnean soilik estaliko ditu horiek Udalak, aurrez gastuei dagozkien fakturak ekarrita.

Kredituak likidatzerakoan, agiriak egiterakoan edo konpromisoak hartzerakoan Udaleko buru, funtzionario eta kideek ordainketa oker guztiak itzultzeko erantzukizuna izango dute, hartuta dituzten eginkizunen arabera. Edozein motako agintari eta funtzionarioek, iruzurratik, erruagatik edo arduragabekeria larriagatik lege-xedapenak hautsiz erabakiak hartu edo egintzak egiten badituzte, horien ondoriozko kalte eta galerak ordaintzera behartuta daude Korporazioari.

Dena dela, gastuak eta ordainketak egintzen dituenak eta kontu-hartzaileak, aipatu gastu eta ordainketa horiek desegokiak direla idatziz ohartarazten ez badu, baimentzen dituzten behar adinako krediturik gabeko gastu guztien erantzule izango dira, baita aitortzen, kitatzen edo ordaintzen duten obligazio guztien erantzule ere.

13.- Salmentak.- Alkatetzaren aginduz egingo da ezertarako ez diren gauzen salmenta, aipatu gauzek 360.- euro baino gutxiago balio dutenean. Nolanahi ere, esan behar da Udalaren beste erabakirik behar ez duten salmentetarako oinarria dela hori.

14.- Alkateak ez du bere eskumenik inoren esku utzi, eta ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoak ditu bere esku.

15.- Kredituen lotespen juridikoaren mailak honako hauek izango dira:

Funtzio-programa eta azalpena.

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak  
Inbertsio errealak  
Finantza aktiboen aldakuntzak

Funtzio-programa eta azalpena.

2. kapitulua (elektrizitate, ur, gas eta erregai horniduren partidak izan ezik, hauek Aurrekontu osorako azpikontzeptu ekonomiko gisa azalduko dira).

Kapitulua

Langile gastuak

Finantza gastuetako 3.kapitulua eta Finantza Pasiboen aldakuntzetako 9.kapituluak uztartuta geratzen dira.

2. kapituluko kontusail askoren gastuak urte guztian zehar sortzen direla kontuan hartuta, eta, kredituen lotespen juridikoaren mailak zorrotz aplikatzearen ondorioz, aipatu kontusailtako kredituak agortu ez daitezzen, kontu-hartzailetzaren aurrekontu-partidarekiko kontrola 2013ko azarora arte egingo da.



Gainera, ondorengo kontusail hauei, banan-banan, urte osoan egingo zaie jarraipena, nahiz eta azkenean artikulua honen hasieran ezarritako kredituen lotespen juridikoko mailak aplikatu.

PARTIDA	IZENA
226.111.00.02	Protokolo-arretak, gobernu-organoak
231.111.00.01	Dietak, joan-etorriak, gobernu-organoak.
213.222.11.01	Ibilgailuen mantentze-lana, udaltzaingoa.
210.222.12.01	Bide-seinaleen mantentze-lana, trafikoa.
211.422.12.01	Eraikinen mantentze-lana, Urdaneta ikastetxea.
212.422.12.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, Urdaneta ikast.
227.432.10.07	Hirigintzako azterketa teknikoak
212.433.00.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, argiteria.
212.434.11.01	Instalazio, parke eta lorategien mantentze-lana.
210.441.20.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, saneamendua.
226.451.10.99	Kultur ekintzak
226.454.11.99	Herriko jaiak
226.454.12.98	Euskal jaiak Beste ospakizun batzuk
226.454.12.99	Euskal jaiak Asteazkena.
226.454.13.98	Eguberrietako apaingarriak
226.454.13.99	Eguberriak
210.511.00.01	Bide publikoen mantentze-lanak
226.622.31.91	"Artzain Eguna" azoka
226.622.31.92	Erdi Aroko Azoka
226.622.31.97	Ardo Azoka
226.622.31.99	Eguberrietako ezohiko azoka.

16.- Ordainketak. Ordainketak, oro har, banku-transferentzia bitartez egingo dira.

Ordainketak, faktura Udalaren kontu-hartzaitza departamentuan sartu edo faktura data baino 30 egun lehenago egingo dira; bi datak oso desberdinak badira, obra-ziurtagiriaren data kontuan izango da; betiere, nahitaezko oniritzia edo akordioa badu.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.:

Adierazi du aurrekontuaren edukiarekin hasi aurretik azalpen labur bat egin nahi duela, azpimarratu du politika sozialak indartzeko aurrekontu bat osatu dela, eta lortu dela lehen aldiz abenduko Udal Osoko Bilkuran onartzeko ekartzea, eta hau kudeaketarako oso garrantzitsua dela, eta aurrekontu proiektuaren ibilbidea nola izan den azaltzeko, adierazi du irailean hasi zela aurrekontuaren inguruko gogoeta eta lehen irizpideak jaso ziren, urrian eta azaroan 8 bilerak egin ziren, inbertsioei dagokienez iaz bezala herritarrei luzatu eta parte bat beraiekin batera adostu dira ; bestalde bilerak egin dira Udal

zerbitziburuekin, Batzordeekin (Kirola, Ongizate, Euskara) eta Udalak osatzen duten gainerako alderdi eta teknikariarekin azaroaren 27an egin zen lehen bilera eta lehen zirriborroa banatu zitzairen, eta abenduaren 4an banatu zitzaizkien inbertsioak, eta data horretarik aurrera EAJ alderdiarekin ere beste 3 bilera egin dira, eta eskerrak eman dizkie aurrekontu hauek prestatzeko parte hartu duten guztiei; jarraitu du esanez azken egun hauek oso intentsoak izan direla eta horrek aipamen berezia merezia duela, azpimarratu du EAJ alderdiak 10 proposamen helarazi dituela, eta aztertu ondoren aintzat hartuko direla gero azalduko duen moduan, eta horregatik eskerrak eman dizkio EAJ alderdiari aurrekontua hobetzeko eginiko ekarpenengatik. Inbertsioei dagokionez, nahiz eta aste honetan taula berritua bidali Urdaneta kaleko berrurbanizatzeko lizitazioko prezioak jakin ondoren, arazoak daude lizitazio honekin eta horregatik erabaki da atzera bueltatzea eta ontzat ematea alde aurretik bidali zen inbertsio dokumentua.

Aurrekontuaren edukari dagokionez eta iazko aurrekontuaren helburuarekin jarraituz krisi ekonomikoari aurre egiteko neurriak hartzen dira, bestalde politika sozialetan egin nahi dira inbertsioak, era honetan enplegu programa azpimarratu du, aurten 14 lanpostu berri kontratatzea aurreikusten da, litekeena da azkenik kontratazio gehiago izatea kontratazio formulazioa aldatu daitekeelako (iaz 6 hilabeterako kontratazioak izan ziren); merkataritza suspertzeko iazko kopuruari 28.000,00 euro gehitu zaizkio eta alokairu soziala sustatzeko 21.600,00 euro destinatu dira. Gastu arrunten murrizketarekin jarraituko da, eta azken bi urteetan egin diren biltegi erosketak direla eta, alokairuetan ez da inongo gasturik izango (lehen alokairuetan urtean 90.000,00 euro inguruko gastua izaten zen). Eraikin eta kaleko argiteri publikoan energia berriztagarrietan inbertitzen jarraituko da eta horretarako 20.000,00 euroko partida bat aurreikusi da, eta horrekin jasangarritasunarekin konpromezua azaltzeaz gain gastu arrunten murrizketa ere suposatuko du. Ingurumenarekiko konpromezua indartzen jarraituko da, eta era honetan Oianguko partehartze prozesuan lehenetsitako proiektuen jarraipena egingo da, horregatik Oianguko baserria eraberritze proiekturako 150.000,00 euroko partida aurreikusi da, Oianguko kontserbaziorako Aranzadirekin lankidetzaren hitzarmena sinatzeko 17.500,00. euroko partida, eta garapen jasangarriko delegazioan 49.120,00 euroko partida bere horretan jarraitzeko. Bestalde, herriko elkarten beharrak aztertzen jarraitzen dugu eta aurten 20.000,00 inguruko partida bat aurreikusi da herriko elkarten beharrei erantzuteko, azkenik hausnarketa hau bukatzeko zerrendatu ditu zein diren aurtengo inbertsio garrantzitsuenak:

- Urdaneta kaleko berrurbanizatzeko proiektua: inbertsio honen kopurua ixteko argitu beharko da nola geratzen den azkenean lizitazioa.
- Agarreko bidea: bihar bertan sinatuko da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena, eta hitzarmen horretan jasotzen dira proiektu honi buruzko ezaugarriak.

Jarraian, azken egun hauetan EAJk Udal Gobernuari egindako proposamenen azalpena eman du honako laburpenaren arabera:

GASTUAK				
PARTIDA	ZER	ADOSTUTAKOA	Aldaketa partidetan	
			Igo	Kendu
121.00 Administrazioa (422.01 Eudeli		Ekarpena kontenplatuko dugu, beti ere, negoziaketak desblokeatu eta bideratzen	422.01 Eudeli ekarpena (1.500€ jarri)	481.03 Irabaz asmorik gabeko

ekarpena)		direnean ordaintzeko.	<b>1.500€</b>	erakundeei transferentzia (1.500€ kendu) <b>6.500€</b>
121.00 Administrazioa (227.07)	Prozesua: Udal kudeaketa eraginkorra proiektua, non, helburuak, estrategiak, baliabideak eta indikadoreak finkatuko ziren.	Udala neurriak hartzen ari da kudeaketa eraginkorra (langileak, funtzioak, planifikazioa...) egiteko. Bide horretan Udalak Attestek proposatu zuen proiektu pilotoa berrartu eta aztertzeko.	324. Partaidetza eta komunikazioan 6.500€ ditugu partaidetza ekintzerako. Partida hau erabili daiteke, horrelako prozesuak egiteko.	
424.00 Hiri hezitzailea	Programa indartzeko asmoz, diruz eta Enplegu Sustapeneko errekutso bat. 3.000€ko igoera eta 6.000€ jartzea	Enplegu Sustapeneko lanpostua kontenplatuta dago. 6.000€ra igoko da.	227.04 Hiri hezitzailea programa (3.000€ gehiago jarri) <b>6.000€</b>	
432.10 Hirigintza	Mugikortasun plana (Parking) Garagartzako estalpea Majoriko eraikin berria Anselmo baratzekeo proiektua? Irisgarritasuna beharrak asebate.	Mugikortasun planean lehenetsitako proiektuen (parking eta igogailuen) aurre proiektuak kontenplatuko dira . 6.000 € (Barrenako Parkina). Proiektua egitek aukera baloratuko da inbertsioen berregokitzapenak uzten badu. Majoriko eraikineko aurre proiektua 6.000€. Majoriko berriko isurbidea aurreikusteko proposamena. 30.000 €. MBPBik aurtan Urdaneta erdi oinezkotzea lehenetsi da. Irisgarritasunean dauden eskaerak aintzakotzat hartuta asebetetzea. Bihar izango ditugu kopuruak.	227.04 Azterketa eta lan teknikoak (12.000€ gehiago jarri) 227.04 Musika probak Etxezarreta kalean (2*1700= 3.400€) <b>45.360€</b>	
451.10 Kultura (Nikolas Lekuona)	Nikolas lekuonaren inguruan Ordiziako kultur eragile eta baloreak, lehenetsi eta indartu. 10.000€ jarraipena ematea.	Proposamen zehatza behar dugu.	Kultura batzordean eragileekin aztertu Udaleko kultur balioen garapena eta ezagutaraztea.	
451.40 Ordizia	Ordiziako azokaz	Enplegu Sustapeneko	Azoka batzodean	

2012	baliatuz, azoka eta lehen sektorearen indartze prozesua martxan jarri. Honetarako ere Enplegu Sustapenako errekurso bat eskatzen dugu, bere garaian ere, proiektu ideia bat ere luzatu genuen. Plaza ere, egokitzeko irizpideak hartu eta ondoren proiektu bat bideratu. Formazio saioak, kalitatea programa.	lanpostua kontenplatuta dago. Azoka sustatzeko 5.000€ kontenplatuta. Egin daitezkeen ekintzak zehaztu behar ditugu.	eragile ezbedinekin landu azokaren biziberritzea. Aurreko legealdian proposatu zen aurreproiektua berrikusiko da.  *1	
622.31 Azoka bereziak	Azoka berezien hausnarketa bultzatu. Egiteko asmoa dauden azokak, duintasunez egiteko diruz lagundu	Azoka batzordea daukagu lan horietarako. Prest gogoeta hori egiten jarraitzeko. Zehaztu egin behar da nola.	*1	
622.40 Merkataritza	Enplegu Sustapeneko errekurso bat bideratzea, hainbat ekintza burutzeko. Ostalaritzaren dinamizazioa eta Etxezarreta kalea piloto hartu, indartzeko.	Merkataritza sustatzeko plangintza martxan dugu. Aitorren kontratazioa berretsi dugu urte beterako, baina errekurso berriak destinatuko ditugu. Lanaren definizioa egin behar da horretarako.	MBPBa berrikusi eta bere garapena landu. Proiektu zehatza garatuz gero, enplegu planetik kontratazioa garatu daiteke. Merkataritzako ekintzetarako 3.500€ko partida daukagu guztion artean zehazteko.	
751.00 Garapen sustapena	Aktibitateak komunikazioa indartzeko.	Zehaztu zein den proposamena.	Garapen sustapenean aktibitateen partidan 1.500€ ditugu eta beharrik balego, handitzeko aukera dago.	
INBERTSIOAK	Anselmo baratzaren lotura 21P-ko igogailua hobetzeko Herriko seinalitika hobetzea.	21P igogailuko proiektua aurreikusita dago (6.000 €) Seinalitika ere erreikusta.	Majoriko eraikin berriko isurbidea aurreikusiko da. <b>24.000 €.</b>	Oianguko baserria (50.000€ra jaitsi da) <b>150.000€</b>

Honekin batera, Udal Gobernuaren konpromezua aurrekontu honen jarraipena hiru hilabetez behin egiteko, eta hainbat ekimen egiteko bi norabide zehaztu dira, dagokion lekuetan, Batzordeetan gogoeta habiatzea eta hausnarketa hori egitea, eta inbertsiotan izan dizakegun beherapenak baliatu ahal izatea behar diren kredituak egokitzeko, eta hauei lotutako balizko dirulaguntzak aurreikustea.

#### Santamaria jn.

Adierazi du Ordiziako EAJk barne hausnarketa bat egin duela dagoen egoera ikusita eta Ordiziako etorkizunean pentsatuz, eta horren arabera epe motz eta luzera proposamenak egin dituela; aurrekontu proiektuak dituen gabeziak ikusita zuzentzeko proposamenak direla; ez dutela ezer kentzeko proposatu jakinda Bilduk gehiengo osoa duela, lehenetsun batzuk dituela eta errespetatzen dituela lehenetsun horiek nahiz eta ez izan beraien gustukoak. Konprometituko partidak handiak direla ere onartzen dute, eta horiek ezin direla ikutu: bai bigarren kapituluan, Udal erakundeei ekarpenetan, pertsonaleko gastuetan, hemen aipatu du lanpostuen balorazioaren aplikazioa eta aurrekontuan aurreikusitako 70.000,00 euro. Ez daude ados ere politika kutsua duten partidekin, ezta zabor bilketari buruz egin den prozesuarekin, gizartea banatzeaz gain errekurtsotan ekarri duen murrizketarengatik. Gastu exekuzioari buruz adierazi du bi aspektu aipatu nahi dituela, ongizate saileko aurrekontuaren exekuzio portzentaiak hausnarketa bat eskatzen duela, eta zentzu berean dirusarreretan Upabiko aprobetxamendua laugarren urtez agertzen diren 304.000,00 euro. Luzatu diren proposamenei dagokienez etorkizunerako planifikazioan kokatzen dira, jakinda zein egoera dagoen, eta zein mugak dauden, bai kudeaketa eta planifikazioa eskatuz. Krisi inguru batean, gaurko beharrak eta etorkizunera begira eginak dira, bai azoka, merkataritza, kirola, ostalaritza, gizarte orokor alorretan. Bukatu du esanez, alkateak aipatu dituela nortzuk diren proposamenak, eta berak ez dituela errepikatuko, azpimarratuz eskatutako jarraipen batzordea onartu dela, eta guzti hori kontuan hartuta konfidantza margen bat ematen diela aurrekontuaren jarraipena egiteko.

#### Dubreuil jn.

Alderdi Sozialistak aurkeztutako aurrekontuen aurka bozkatuko du. Aurrekontu hauetan, gure ikuspuntutik, aurreko aurrekontua ez onartzeko arrazoi eta kausak errepikatzen dira, eta beraz, koherentziaz jokatzeko badugu gure arrazoiak eta jarrera ere mantendu behar ditugu.

Aurrekontu honetan, beste behin ere ordiziarrek ateratzen dira galtzaile, besteak beste diru-sarreraren kapituluan ateratzen delako tasa, zerga eta prezio publikoen igoera. Guk jada horren kontra egin genuen aurreko urteko urriko osoko bilkuran gaia aztertu zenean.

Horrenbestez, koherentziaz, EZIN ditugu aurrekontu horiek onartu, une honetan aurrekontuetan funtsezkoa den arlo batean gure pentsamoldearekin bat ez datorren kontua biltzen duelako; alegia, udal-tasetatik, -zergetatik eta -prezioetatik datozen 'sarrerak'.

Diru-sarreraren kapitulu horretan gainera udal finantziatorako Foru Funtzaren %100 aurreikusten da berriro ere. Gure ustez ez da komeni hori egitea, zuhur jokatu beharko litzateke.

Aurrekontu honetan udal eremutik krisiari aurre egiteko ahalegin berriak egiten badira ere, eta ahalegin horiek bere neurrian onartzen baditugu ere, ez dira udalbatza osatzen dugun guztion adostasunaren eta partaidetzaren emaitza. Dirudienez, Bilduk ez du oposizioko alderdien edota herritarren

partaidetzaren beharrik ikusten bizi dugun egoerari eta arazoari aurre egiteko (krisia, langabezia tasa altuak, familietako arazoak etab.).

Zuek proposatutako, inposatutako eta ezarritako hondakinak biltzeko sistemaren aurka azaldu diren ordiziar askoren iritziaren eta nahiaren kontra doan aurrekontua da honakoa.

Udalak Sasieta Mankomunitateari egiten zion ekarpena 2013ko aurrekontuan 488.500 €koa zen, eta 2014an 529.000 € izatera pasa da. Pasa den urtean baino %8,3 gehiago. Hau da, 40.000 € baino gehiago, ia lehengo 7 milioi pezeta gehiago, gauza garrantzitsuagoentzako erabili zitezkeenak, zaborra jasotzeko erabiltzen dira.

Baina hau ez da okerrera. Okerrera da ez ditugula benetako zenbaki edo kopuruak ezagutzen, alde batetik urtero sistema honetan gastatuko duguna eta bestetik orain arte ordaindu duguna sistema ezartzen. Gure iritziz, aurrekontu hauek ez dute argitzen behar bezala bilketa sistema aldatu izanaren gastua. Duela hilabete batzuetatik hona eskatzen aritu gara azalpen hau baina gaur egun oraindik inork ez digu ezer argitu.

Bide batez, Sasieta Mankomunitateko gure ordezkariak informazio batzorde batean biltzeko eskaera egin nahi dut berriro, ordezkari gisa egiten duten lanari buruzko, eskualdeko hondakinen bilketari buruzko eta izandako aldaketek Ordizian eragingo dituzten aldaketei buruzko azalpenak emateko.

Aurrekontuekin jarraituz, gure ikuspuntuaren arabera, salatu nahi dugu egun bizi dugun egoera ekonomiko zail hauetan ordiziarren egoera islatzen ez duten eta egoera horri aurre egiten ez dioten zenbait aurrekontu-partidak egotea, eta gure herriaren garapenerako gure iritziz funtsezkoak ez diren partidetan gastu arruntari eustea: besteak beste, komunikazio- eta partaidetza-zinegotzi bat liberatzea (41.000 €), edp 'Udalbiltza', eta beste hainbatetarako partidak areagotzea.

Zalantza sendoak ditugu ondorengo partidekin:

- Berdintasuna

“Sentsibilizazio ekintzetarako” 30.000 € izatea eta, horiek kudeatu behar dituzten langileen gastuak 79.000€. Beste modu batean esanda, berdintasuna sustatzeko 109.000 €ko aurrekontutik, langileen gastuak 79.000€ izatea (langile gastuak %72,5).

Alde handia dago Ongizate Sailarekin alderatzen badugu, izan ere, langileen gastuak 292.000 €koak izanik, 921.000 €ko aurrekontua duen sail bat kudeatzen da (langileen gastuak %32a dira). Edo kulturaren, %33a da.

- Partaidetza eta Komunikazioa

Kontratututako enpresaren gastua 35.700 €koa izanik, 82.300 €ko aurrekontua kudeatuko dugu (Hitza eta Goiberriko diru-laguntzak kentzen badizkiogu -19.300- adierazgarriagoa da. %56,5).

2014 urtea ere gogorra eta ekonomikoki zaila izango da, eta 2015 urtea ere bai seguruen, eta Aurrekontu Proiektuan ez dugu ikusten, lehen esan bezala, ordiziarren ekonomia-, finantza- eta lan-

egoerarekin bat datorren politika bat, eta ez dator bat gure udalerrian krisiari aurre egiteko politika bateratu edo planifikatutako batekin edo austeritate politika batekin.

Horrekin guztiarekin, 2014ko aurrekontu proposamenaren aurkako gure bozka arrazoitu nahi izan dugu.

#### Alkate jn.

Adierazi du, Santamaria jaunak esanda bezala EAJ taldeak ez duela ezer kentzea proposatu, eta egia dela Bilduk duela gehiago osoa gobernatzeko eta ardura hori duelako EAJ taldeak proposatu dituen kontzeptuak, Bildun ikuspuntuaren kontra ez doazenak, aurrekontuari gehitzea onartu dela. Kudeaketa eta planifikazioari buruz uste dute badaudela mekanismoak guztiz profesionalizatu gabe, Udal barrutik egin daitezkeenak, eta hortik bideratuko dira hainbat proposamen. Poztu nau Dubreuil jaunaren azalpenean entzutea krisiari aurka egiteko ahalegin bat ikusten dela, zeren eta iaz gauza bera egin bazen ere, kontrakoa esan zuen. Hondakinen bilketaren gaiari buruz uste du ez dagoela aurrekontuari lotuta, baizik eta Udal gobernuari pendiente geratzen zaiola bakarrik 2013 urteko kudeaketaren ondorioz Udalak egin dituen ekarpen zuzenak agertzea, zeren eta gainerako gastuak eta informazio osoa aurkeztu zen astelehen honetan Sasietan egin zen bileran.

Gauza kurioso bat, Dubreuil jaunak aipatu du berdintasunean 70.000,00 euro gastatzen direla 30.000,00 euro kudeatzeko, hori ez da egia, 70.000,00 euro gastatzen dira 11.811.000,00 euro kudeatzeko, zeren eta berdintasun ikuspegia ez da bakarrik berdintasun ekintzak egitea baizik Udalarekin zerikusia daukan eta barrura zein kanpora egiten den guztia lan hori aurrera eraman ahal izatea. Aurrekontua iazko aurrekontuaren jarraipena izango da, politika sozialak indartzeko bidean ere badaude beste bide batzuk lřakik ezagutzen dituenak, Ordizia Lantzen bitartez, alokairua bultzatzeko, denean artean gauzatzen ari direnak.

#### Dubreuil jn.

Politika sozialak, batez ere krisiaren aurka, lana sustatzera bideratuko den politikak, etab. gehiago absolutoa gainditu behar duela errepikatu du berriro ere, eta gainerako alderdietara zabaldu behar dela, eta horrekin batera epe motzerako ez baizik etorkizunerako sena duen jendearengana iritsi behar dela, arlo honetan prestatua dagoen jendearengana. Etorkizunera begira jarri behar dugu, diotenez kimu berriak jaiotzen hasi dira eta hori aprobetxatu beharko da, eta gutxienez ahalegin hori egin beharko da.

#### Alkate jn.

Adierazi du bozketara pasatu baino lehen, Santamaria jaunak egindako adierazpen bati buruzko aipamen bat egin nahi duela, zeren eta esan duenean langileen balorazioak aurrekontua murrizten duela, eta abar, zentzu horretan Udal langilegoari dagokionez hobesten duela langileekin duen konpromisoak, eta horren barne atzerapenen ordainketa, eta ez hori bakarrik baita erabaki dela Elkarkidetzaren aportazioa etenda egon dena, urtarriletik aurrera berriro aportazioarekin hastea, zilegi delako, eta langileei zor zaien eskubide bat berreskuratzen dela.

### Kontuhartzaile jn.

Ikusita aurrekontuan aldaketa batzuk sartzea planteatzen dela, galdetu du ea zer aurrekontu onartu behar den.

### Alkate jn.

Erantzun dio onartu behar dela ekarri den proiektua, EAJ taldearekin adostutakoak gehituta.

### Kontuhartzaile jn.

Adierazi du hainbat aldaketa planteatzen direnez, berak jakin behar duela zein diren benetan, baloratzeko ea onartzea proposatzen den aurrekontuak Egonkortasun legea betetzen duen.

Dauden zalantzak argitzeko gaia eztabaidatu eta aukera desberdinak aztertu ondoren, kontuhartzailearen oniritzia edukita, honela geratzen dira proposatzen diren aldaketak:

PARTIDA	KONTZEPTUA	ALDAKETA eurotan
422.111.00.01	Eudeli ekarpena	+ 1.500,00
481.111.00.03	Irabazi asmorik gabeko erakundeei transf	- 1.500,00
227.424.00.0	Hiri hezitzaile program	+ 3.000,00
227.432.10.07	Azterketa eta lan teknikoa	12.000,00
	Guztira	+ 15.000,00

#### Inbertsioak

PARTIDA	KONTZEPTUA	ALDAKETA eurotan
601.511.00.06	Zineko eskailerak konpondu	- 12.000,00
601.511.00.07	D. Unanue plazako zuloa konpondu	- 26.850,0
601.511.00.08	Zoru labaigarrientzat tratamendua	+ 3.000,00
	Guztira	- 44.450,00

Dagoen aldea:  $15.000 - 44.450 = -29.450$  601.511.00.05 (Urdaneta kaleko berrurbanizazio proiektua) partidari gehitzen zaio, eta partida hori honela geratzen da:  $361.500 + 29.450 = 390.950$

Aipaturiko aldaketak kontuan hartuta, honela geratzen da bozketatu beharreko aurrekontu proposamena:

### AKORDIO PROIEKTUA

#### SARRERAK

KAPITULUA	IZENA	EURO
1	Zuzeneko zergak	2.410.270
2	Zeharkako zergak	140.000
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.643.138
4	Transferentzia arruntak	8.220.776



5	Ondare sarrerak	263.409
6	Inbertsio errealak besterentzea	2.338.098
7	Kapital transferentziak	774.000
8	Finantza aktiboen aldakuntzak	45.000
9	Finantza pasiboen aldakuntzak	296.201
<b>GUZTIRA</b>		<b>17.130.892</b>

#### GASTUAK

KAPITULUA	IZENA	EURO
1	Langileen ordainsariak	4.933.174
2	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea.	5.956.714
3	Interesak	191.585
4	Transferentzia arruntak	1.990.037
6	Inbertsio errealak	2.615.844
7	Kapital transferentziak	30.890
8	Finantza aktiboen aldakuntzak	292.631
9	Finantza pasiboen aldakuntzak	1.120.017
<b>GUZTIRA</b>		<b>17.130.892</b>

Honako aurrekontu hauek bat egitearen ondorio direnak:

#### UDALAREN BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-	2.410.270	Kap. 1.-	3.913.164
Kap. 2.-	140.000	Kap. 2.-	2.803.412
Kap. 3.-	1.033.700	Kap. 3.-	76.090
Kap. 4.-	6.767.052	Kap. 4.-	3.079.890
Kap. 5.-	40.900		
Kap. 6.-	304.000	Kap. 6.-	1.515.560
Kap. 7.-	774.000	Kap. 7.-	80.665
Kap. 8.-	45.000	Kap. 8.-	45.000
Kap. 9.-	296.201	Kap. 9.-	297.342
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.811.123</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>11.811.123</b>

#### “SAN JOSE EGOITZA” ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	754.312
Kap. 2.-		Kap. 2.-	1.909.168
Kap. 3.-	854.696	Kap. 3.-	
Kap. 4.-	1.799.284	Kap. 4.-	
Kap. 5.-	9.500		

Kap. 6.-		Kap. 6.-	
Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.663.480</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.663.480</b>

**“HERRI ANTZOKIA” ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	91.220
Kap. 2.-		Kap. 2.-	81.450
Kap. 3.-	48.900	Kap. 3.-	50
Kap. 4.-	111.820	Kap. 4.-	
Kap. 5.-	12.000		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	4.775
Kap. 7.-	4.775	Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>177.495</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>177.495</b>

**MAJORI KIROLDEGIA SM-ren AURREIKUSPEN BALANTZEA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	174.478
Kap. 2.-		Kap. 2.-	1.147.487
Kap. 3.-	705.842	Kap. 3.-	6.000
Kap. 4.-	702.479	Kap. 4.-	70.006
Kap. 5.-	8.950		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	45.000
Kap. 7.-	45.000	Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	19.300
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.462.271</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.462.271</b>

**ORDIZIA LANTZEN SM-ren AURREIKUSPEN BALANTZEA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	
Kap. 2.-		Kap. 2.-	15.197
Kap. 3.-		Kap. 3.-	109.445
Kap. 4.-		Kap. 4.-	
Kap. 5.-	192.059		
Kap. 6.-	2.034.098	Kap. 6.-	1.050.509
Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	247.631

Kap. 9.-		Kap. 9.-	803.375
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.226.157</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.226.157</b>

Ondoren idatzi den Aurrekontua Betearazteko Udal Araua onartzea:

### **2014ko AURREKONTUA BETEARAZTEKO OINARRIAK**

1.- 2014ko urteko ekonomi ekitaldian, Ordiziako Udalak bere Aurrekontuaren hasierako kredituen guztizko zenbatekoaren gehienez ere % 1eko abalak eman ditzake. Erakunde autonomoek ezin izango dute hirugarrenen aurrean abalak eman, ezta inolako bermerik hitzartu ere.

2.- Gastuen Aurrekontuko honako kontusail hauek handitu daitezke bakoitzarentzat ezartzen den finantziazioaren arabera.

<b>GASTUAK</b>		<b>SARRERAK</b>	
<b>Partida</b>	<b>Kontzeptua</b>	<b>Partida</b>	<b>Kontzeptua</b>
227.611.00.07	Foru Aldundiak herri-zergak kudeatzeagatiko kontua	112.01, 112.02, 130.01 eta 130.02	Askotarikoak
227.611.00.09	Nahitaezko dirubilketarako kontratua	392.01 eta 393.01	Askotarikoak
226.222.12.99	Ibilgailuak kentzea	310.05	Ibilgailuak kentzeagatiko sarrerak
212.222.12.01	Bideko seinaleak mantentzea (pilonak)	399.01	Matxurak eragiten dituztenen sarrerak.

Alkatetzaren dekretu bidez onartuko da kreditua handitzeko espedientea.

3.- Funtzio-multzo beraren barruan egin beharreko kreditu-transferentziak Arlo bakoitzeko arduraren Delegatuak eskatu beharko ditu, eta Alkate jaunaren dekretu bidez onartu beharko dira.

Kontusailak gaintzen badira, eta egoera horretan dagoen ordezkariak egin beharreko transferentziak egitea proposatzen ez bada, Ogasun Ordezkaritzak egokien irizten dituen kontusailak hartuko ditu.

Funtzio-multzo ezberdinen arteko kreditu-transferentziak Osoko Bilkurari dagozkio. Inbertsioetarako kredituak murriztea ekarriko duten kreditu transferentzien espedienteetarako, Osoko Bilkuraren erabakia beharko da. Gai horretan, Alkate jaunarentzat zehaztutako eskumen berberak izango dituzte Erakunde Autonomoetako buruek.

4.- Kontu-hartzaileak prestatuko du kredituak erabiltzeko espedientearen zirriborroa, horretarako honako faseetan geratu diren gastuei erreparatuko die: abenduaren 31n Baimenduan (B) edo Xedatutakoan (X) zeudenak. Alkate jaunari dagokio espedientea onartzea.

5.- Alkateak kreditu gehigarrien espedienteak onar ditzake, baina beti ere, metatuz gero, diru-sarrera arruntzen aurrekontuaren %5a baino gehiagokoa ez bada.

6.- "Maileguak langileei" 833.121.00.01 kontusaileko kredituak eskuratzeko, interesdunek eskaera egin beharko dute, eta proposatutako eta aurrekontuan jasotako gastua justifikatu beharko dute. Ogasun Ordezkaritzak ebatziko du mailegua ematea bidezkoa den ala ez; oniritzia jasoz gero, alkate jaunaren dekretuz betearaziko da.

7.- Dedikazio eskusiboa duten kargu politikoen eta zinegotzien ordainsariak gutxitu egin dira aurrekontu hau doitu ahal izateko, krisi ekonomikoak kaltetu dituen pertsonetikiko elkartasunean.

8.- Aurrekontuan aurreikusitakoak baino diru-laguntza finalista handiagoak emateko, kopuru berdineko gastu-kredituak gaitu beharko dira dagozkien gastu-partidetan. Alkate jaunak baimenduko du gaitze hori.

9.- Honako hauen inguruko gastuak egiteko:

- Langileak kontratatzea
- Lanak kanpokoekin kontratatzea.
- Mantentze-lan hutsak ez diren obrak edo lanak udal-zerbitzuek beraiek egitea
- Material inbentagarria erostea.

Alkatetzaren dekretu bidezko alde zuzeneko onarpena behar izango da, eta aurrez kontu-hartzailearen txostena eskatu beharko da. Alkatetzaren aldeko dekretua jasotzen ez den bitartean, erabat geldituko da gastu-espeditentzaren tramitazioa.

10.- Bi (2) hilabetean behin kontu-hartzaileak aurrekontu-partiden egoeraren berri emango die ordezkaritzari; horiek behar diren neurriak hartu beharko dituzte onartutako kreditua ez gainditzeko. Erabilgarri dagoen kreditua behar adinakoa ez dela irizten bada, bai aparteko gastuak izan direlako, bai Aurrekontua egiterakoan ezagutzen ez ziren beste premia batzuk daudelako, dagozkion Ordezkaritzak kreditu-gehigarri ematea proposatuko du; horretarako, dagozkion finantziarioak proposatu beharko du, edo kreditu-soberakina eskatu beharko du, halakorik balego.

11.- Dietak.- Udalaren ordezkariek, Alkateak eta Zinegotziek, eta udal-langileek joan-etorriengatik sortzen zaizkien gastuak kobratzeko eskubidea izango dute, beti ere joan-etorri horiek udalaren eskumenekoak diren gaiak kudeatzeko egiten direnean; horretarako, Korporazioak baimena emana behar du. Gastu horien kopurua honako hau izango da:

Autonomia Erkidego barruko joan-etorria norberaren ibilgailuan, 0,29 euro/km. Gosariak: 6 euro. Bazkaria: 16 euro. Afaria: 16 euro.

Ostatu hartzea: gehienez pertsona/eguneko/ 100 euroko gastua duen hotela.

Ikastaroetara nahiz azoketara joanez gero, bazkari, afari eta ostatu hartzeko ere ezarritako mugak aplikatuko dira. Erakunde arteko harremanengatik aipatu horiek baino gastu handiagok egin behar direnean soilik estaliko ditu horiek Udalak, aurrez gastuei dagozkien fakturak ekarrita.

Kredituak likidatzerakoan, agiriak egiterakoan edo konpromisoak hartzerakoan Udaleko buru, funtzionario eta kideek ordainketa oker guztiak itzultzeko erantzukizuna izango dute, hartuta dituzten eginkizunen arabera. Edozein motako agintari eta funtzionarioek, iruzurratik, erruagatik edo

arduragabekeria larriagatik lege-xedapenak hautsiz erabakiak hartu edo egintzak egiten badituzte, horien ondoriozko kalte eta galerak ordaintzera behartuta daude Korporazioari.

Dena dela, gastuak eta ordainketak egintzen dituenak eta kontu-hartzaileak, aipatu gastu eta ordainketa horiek desegokiak direla idatziz ohartarazten ez badu, baimentzen dituzten behar adinako krediturik gabeko gastu guztien erantzule izango dira, baita aitortzen, kitatzen edo ordaintzen duten obligazio guztien erantzule ere.

13.- Salmentak.- Alkatetzaren aginduz egingo da ezertarako ez diren gauzen salmenta, aipatu gauzek 360.- euro baino gutxiago balio dutenean. Nolanahi ere, esan behar da Udalaren beste erabakirik behar ez duten salmentetarako oinarria dela hori.

14.- Alkateak ez du bere eskumenik inoren esku utzi, eta ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.artikuluaren xedatutakoak ditu bere esku.

15.- Kredituen lotespen juridikoaren mailak honako hauek izango dira:

Funtzio-programa eta azalpena.

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak  
Inbertsio errealak  
Finantza aktiboen aldakuntzak

Funtzio-programa eta azalpena.

2. kapitulua (elektrizitate, ur, gas eta erregai horniduren partidak izan ezik, hauek Aurrekontu osorako azpikontzeptu ekonomiko gisa azalduko dira).

Kapitulua

Langile gastuak

Finantza gastuetako 3. kapitulua eta Finantza Pasiboen aldakuntzetako 9. kapituluak uztartuta geratzen dira.

2. kapituluko kontusail askoren gastuak urte guztian zehar sortzen direla kontuan hartuta, eta, kredituen lotespen juridikoaren mailak zorrotz aplikatzearen ondorioz, aipatu kontusailletako kredituak agortu ez daitezzen, kontu-hartzailetzaren aurrekontu-partidarekiko kontrola 2013ko azarora arte egingo da.

Gainera, ondorengo kontusail hauei, banan-banan, urte osoan egingo zaie jarraipena, nahiz eta azkenean artikulua honen hasieran ezarritako kredituen lotespen juridikoko mailak aplikatu.

PARTIDA	IZENA
226.111.00.02	Protokolo-arretak, gobernu-organoak
231.111.00.01	Dietak, joan-etorriak, gobernu-organoak.
213.222.11.01	Ibilgailuen mantentze-lana, udaltzaingoa.

210.222.12.01	Bide-seinaleen mantentze-lana, trafikoa.
211.422.12.01	Eraikinen mantentze-lana, Urdaneta ikastetxea.
212.422.12.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, Urdaneta ikast.
227.432.10.07	Hirigintzako azterketa teknikoak
212.433.00.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, argiteria.
212.434.11.01	Instalazio, parke eta lorategien mantentze-lana.
210.441.20.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, saneamendua.
226.451.10.99	Kultur ekintzak
226.454.11.99	Herriko jaiak
226.454.12.98	Euskal jaiak Beste ospakizun batzuk
226.454.12.99	Euskal jaiak Asteazkena.
226.454.13.98	Eguberrietako apaingarriak
226.454.13.99	Eguberriak
210.511.00.01	Bide publikoen mantentze-lanak
226.622.31.91	“Artzain Eguna” azoka
226.622.31.92	Erdi Aroko Azoka
226.622.31.97	Ardo Azoka
226.622.31.99	Eguberrietako ezohiko azoka.

16.- Ordainketak. Ordainketak, oro har, banku-transferentzia bitartez egingo dira.

Ordainketak, faktura Udalaren kontu-hartzaitza departamentuan sartu edo faktura data baino 30 egun lehenago egingo dira; bi datak oso desberdinak badira, obra-ziurtagiriaren data kontuan izango da; betiere, nahitaezko oniritzia edo akordioa badu.

### Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketak egin eta gero.

Ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 1 (PSE-EE(PSOE)1)

Abstentzioa: 4 (EAJ 4)

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

### **3.- 2014 ekitaldirako Plantilla Organikoa**

#### Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arazten dituen 1.985ko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko 6/89 Legearen 20. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio urtero Aurrekontuak onartzea, eta funtzionarioen, langile finko eta aldi baterako langileen lanpostu guztiak bateratzen dituen langileen plantilla.

Aipatutako arautegia betetzeko eta dauden aurrekariekin, azterketa eta justifikatzeko agiriekin, Idazkaritzak eta Kontu-hartzailetzak Udal honetako 2014 urterako Plantilla Organikoa eratu dute, aipatutako aginduek zehazten dituzten irizpideei erantzunez, aipatuz iazko zerrendarekiko aldaketei dagokienez, kontuan izan direla Balorazio Batzordeak 2013ko irailaren 17an hartutako erabakiak, eta baita dagozkion Toki Gobernu Batzordeko bileretan adostutako diktamenak.

Horrekin batera Majori Kiroldegiak eta OAAA (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), goian aipatutako artikulua kontuan hartuta, 2014 urteko ekitaldirako dagozkien Plantilla Organikoak egin dituzte eta onartzeko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aurkeztu.

Aurrekoa kontuan hartuta, honako erabakia hartzea proposatzen da

#### AKORDIO PROIEKTUA

**Lehena.- 2014 urteko ekitaldirako Plantilla Organikoa onartzea, Udal honetako langile funtzionarioei dagozkien plazak dituen, eta erabaki honen ERANSKIN gisa doana.**

**Bigarrena.- Majori kiroldegia SL eta OAAAen (San Jose Egoitza eta herri Antzokia) Plantilla organikoak onartzea, 2014 urteko ekitaldirako langile finkoentzat gordetako lanpostu guztiak dituen.**

**Hirugarrena.-GAOn onartutako agiri hauek argitaratzea, toki-arautegi gaietan indarrean dauden lege xedapenei buruzko Testu bateratuaren 127 artikulua zehaztutakoa betez.**

**Laugarrena.- Agiri hauek behin betiko onartzea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaltu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez da izan.

#### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du .

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5(EAJ 4,PSE-EE (PSOE)1)

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako laugarren puntuaren berri eman du:

#### **4.- 2014 ekitaldiko lanpostuen zerrenda.**

##### Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko Legearen 14. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio lanpostu zerrenda onartzea, aurrekontuetan aurreikusitako guztiak jaso beharko ditu, funtzionarioak, langile finkoak eta aldi baterako langileak bereiziz.

Aipatutako araudia oinarri harturik, Idazkaritza eta Kontu-hartzailtza Sailak lanpostuen zerrenda eratu du, Euskal Funtzio Publikoaren legearen 15 artikuluan zehaztutako irizpideak kontuan hartuz, aipatuz iazko zerrendarekiko aldaketei dagokienez, kontuan izan direla Balorazio Batzordeak 2013ko irailaren 17an hartutako erabakiak, eta baita dagozkion Toki Gobernu Batzordeko bileretan adostutako diktamenak.

Horrekin batera, hizkuntz normalizazio plangintzarako 86/1997 Dekretuaren 9 artikulua zehaztutako prozeduraren tramitazioa amaituta, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 97 artikulua zehaztutakoaren arabera, hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-data lanpostuen zerrendan finkatuta egon behar dute.

Bestalde, Majori Kiroldetgia SL eta OOAA-k (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), 2014 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak eratu dituzte, aurrekontuetan behar bezala finkatuta.

Hau guztia kontuan izanik, honakoa proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

**Lehena.- 2014 urteko ekitaldirako Lanpostu Zerrenda onartzea, Udal honen zerbitzura dauden lanpostu guztiak barnean dituen, aurrekontu-dotazioak dituztela, erabaki honetako ERANSKIN eredu dagoen bezala.**

**Bigarrena.- Majori Kiroldetgia SL-ko eta OOAA-etako (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia) lanpostu guztiak, 2014 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak onartzea, dagozkion aurrekontu-dotazioak dituztela.**



**Hirugarrena.-GAOn onartutako agiri hauek argitaratzea, toki-arautegi gaietan indarrean dauden lege xedapenei buruzko Testu bateratuaren 127 artikulua zehaztutakoa betez.**

**Laugarrena.- Lanpostuen Zerrenda behin betiko onartzea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez da izan.

#### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5(EAJ 4,PSE-EE (PSOE)1)

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako laugarren puntuaren berri eman du:

### **5.- Kredituen transferentzien onarpena 2013ko aurrekontuan**

#### Proposamena

2013ko Aurrekontuaren exekuzioaren azterketa egin da eta ikusi da behar berri batzuk daudela espedientearen jasota dagoen moduan.

Era berean ikusi da badaudela beste partida batzuk kreditu soberakina daukatena.

Espedientea bi zatitan antolatu da; bat, eragiketa arruntekin lotutakoa eta bestea, kapital eragiketekin zerkusi duena. Eragiketa arrunten murrizpenak igoerak baino handiagoak dira eta honek adierazten digu finantziatu dutela kapital eragiketak.

#### AKORDIO PROIEKTUA

2013ko Aurrekontuan, honen segidan zehazten den 94.039,00 euroko Kreditu transferentzien espedientea onartzea.

### KREDITU IGOERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
<b>ERAGIKETA ARRUNTAK</b>		
212.222.12.01	Trafiko Kudeaketarako instalak. mantenim.	3.000,00
481.454.11.01	Auzo eta beste entitateei dirulaguntzak	6.765,00
227.611.00.09	Bilketa exekutiboa	8.885,00
		<b>18.650,00</b>
<b>KAPITAL ERAGIKETAK</b>		
624.442.10.01	Bilketarako ibilgailuaren atea	1.515,00
622.443.00.01	Kolunbarioak jartzeko partzela prestatu	7.018,00
622.451.10.04	Musikoentzako lokalak egokitzea	3.000,00
622.451.10.05	Liburutegiaren konponketa	20.120,00
731.451.20.01	Herri Antzokiari ekarpena	3.500,00
601.511.00.06	Zineko eskailerak konpondu	12.573,00
601.511.00.07	Domingo Unanue Plazako zuloa konpondu	26.840,00
622.751.00.01	D'elikatuz-eko atearen konponketa	823,00
		<b>75.389,00</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>94.039,00</b>

### FINANTZIAZIOA KREDITU MURRIZKETA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
<b>ERAGIKETA ARRUNTAK</b>		
231.111.00.01	Asistentzi dietak	8.049,00
227.121.00.99	Itzulpen zerbitzuak	2.000,00
239.121.00.01	Tribunaletako asistentziak	2.000,00
226.313.99.07	Prebentzio programak	4.000,00
226.313.99.08	Mugikortasun urria dutenentzako laguntzak	2.000,00
227.313.99.04	Hitzarmenak	3.600,00
227.432.10.07	Ikerketa eta lan teknikoak	6.500,00
201.435.00.01	Etxebizitzen alokairua	5.000,00
<b>KAPITAL ERAGIKETAK</b>		
649.121.00.01	Emergentzi planak	6.600,00
623.222.11.04	Udaltzaingoaren tresneria	1.790,00
622.422.12.01	Urdaneta Eskolan hobekuntzak	6.000,00
623.434.12.02.2012	Inbertsioak Oiangun	27.700,00
601.444.00.01	Bidegorri Armeria- Bomberia	11.000,00
601.511.00.01	Otegi-Enea-ko ezinduentzako ranpa	3.800,00
601.511.00.02	Obra txikiak	4.000,00
		<b>60.890,00</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>94.039,00</b>

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Intsausti andrea:

Aurkeztutako espedienteari buruzko azalpenak eman ditu, Osoko Bilkura honetara ekarritako espedientean banatuarekiko izandako aldaketak azpimarratuz eta kreditu igoera eta murrizketa esanguratsuenak aipatuz; gastuei dagokienez adierazi du Urdaneta ikastetxerako atezaina kontratatu dela eta Urdanetako etxebizitzan bizitzeko obligazioa duenez, partida bat sartu dela Urdaneta ikastetxeko etxebizitza birgaitzeko 31.360,00 eurokoa, bestalde beste partida bat sartu dela 8.000,00 eurokoa irisgarritasun plana eguneratzeko, proiektu honek Eusko Jaurlaritzako dirulaguntza izango du. Azkenik gastu horiek finantziatzeko azpimarratu du erabiliko dela Oiangun inbertsioak egiteko zegoen partida, inbertsio hauek aurtengo aurrekontuan gauzatzea izan ez delako.

Aldaketa horiek kontuan hartuta honela geratzen da bozketapean jartzen den proposamena:

### **KREDITU IGOERA**

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENA</b>	<b>KOPURUA</b>
<b>ERAGIKETA ARRUNTAK</b>		
212.222.12.01	Trafiko Kudeaketarako instalak. mantenim.	3.000,00
227.432.10.07	lkerketa eta lan teknikoa	8.000,00
481.454.11.01	Auzo eta beste entitateei dirulaguntzak	6.765,00
226.454.12.97	Jubilatuen bazkaria	3.900,00
226.454.12.98	Euskal Jaiak. Beste ospakizunak	2.250,00
227.611.00.09	Bilketa exekutiboa	8.885,00
		<b>32.800,00</b>
<b>KAPITAL ERAGIKETAK</b>		
622.422.12.01	Urdaneta Ikastetxeko etxebizitzaren konponketa	31.360,00
624.442.10.01	Bilketarako ibilgailuaren atea	1.515,00
622.443.00.01	Kolonbarioak jartzeko partzela prestatu	7.018,00
622.451.10.04	Musikoentzako lokalak egokitzea	3.000,00
625.451.10.01	Sukaldeen erosketa	500,00
731.451.20.01	Herri Antzokiari ekarpena	3.500,00
622.751.00.01	D'elikatuz-eko atearen konponketa	823,00
		<b>47.716,00</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>80.516,00</b>

**FINANTZIAZIOA  
KREDITU MURRIZKETA**

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENA</b>	<b>KOPURUA</b>
<b>ERAGIKETA ARRUNTAK</b>		
231.111.00.01	Asistentzi dietak	8.026,00
239.121.00.01	Tribunaletako asistentziak	2.000,00
226.313.99.07	Prebentzio programak	3.000,00
226.313.99.08	Mugikortasun urria dutenentzako laguntzak	2.000,00
227.313.99.04	Hitzarmenak	3.600,00
201.435.00.01	Etxebizitzen alokairua	5.000,00
		<b>23.626,00</b>
<b>KAPITAL ERAGIKETAK</b>		
649.121.00.01	Emergentzi planak	6.600,00
623.222.11.04	Udaltzaingoaren tresneria	1.790,00
622.422.12.01	Urdaneta Eskolan hobekuntzak	6.000,00
623.434.12.02.2012	Inbertsioak Oiangun	27.700,00
601.444.00.01	Bidegorri Armeria- Bomberia	11.000,00
601.511.00.01	Otegi-Enea-ko ezinduentzako ranpa	3.800,00
		<b>56.890,00</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>80.516,00</b>

**AKORDIO PROIEKTUA**

**2013ko Aurrekontuan, azaldu den eran 80.516,00 euroko Kreditu transferentzien espedientea onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

**Bozketa**

Eztabaida mahaian amaitu ondoren, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketa egin eta gero .

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (EAJ 4,PSE-EE (PSOE)1)

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako seigarren puntuaren berri eman du:

## **6.- N.1-Upabi proiektuari buruzko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea.**

### Proposamena

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ORDIZIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA FINANTZATZEKO ETA EGITEKO “N-1 (ORDIZIAKO HEGO LOTUNEA) ETA GI-4491 ERREPIDEAK LOTZEKO AGIRREBIDEA HOBETZEKO 1. PROIEKTU ALDATUA (1-CL-6/2011-M1)”.-**

I.- Erakundeen arteko lankidetzaren esparruan, bide zati bat hobetzea erabaki eta diseinua prestatu dute Ordiziako Udalak eta Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak; eta proiektu honetan jaso dute: N-1 (Ordiziako hegoaldeko lotunea) eta GI-4491 errepideak lotzeko Agirrebidea hobetzeko 1. proiektu aldatua (1-CL-6/2011-M1). Aurrekontu zenbatetsia 576.252,70 euro da, BEZa barne.

II.- Era berean, ekonomia suspertzeko jarduketak eta inbertsio proiektuak garatze aldera, 2013ko aurrekontuan kreditu gehigarri bat onartzen duen 2013ko azaroaren 6ko 7/2013 Foru Arauak (azaroaren 7ko 212 zk. GAO) aurreikusitako jarduketa eta proiektu horien artean dago proiektu aldatu honen finantzazioa, 534.000,00 eurokoa.

III.- Horregatik, Ordiziako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak hitzarmen bat egin nahi dute, Agirrebidea aipatu dugun proiektuan aurreikusitako soluzioaren arabera finantzatzeko eta hobetzeko, elkarlanean. Beraz Gipuzkoako Foru Aldundiak bidalitako hitzarmen honen xedea da Agirrebidea hobetzeko lanak egiteko eta finantzatzeko baldintzak arautzea, N-1 (Ordiziako hegoaldeko lotunea) eta GI-4491 errepideen arteko lotura ahalbidetzeko.

Hori dena kontuan hartuta, honako hau proposatzen da:

**Lehenengoa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ordiziako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena finantzatzeko eta egiteko “N-1 (Ordiziako hego lotunea) eta GI-4491 errepideak lotzeko Agirrebidea hobetzeko 1. proiektu aldatua (1-CL-6/2011-M1) onartzea.**

**Bigarrena: Lankidetzaren hitzarmena sinatzeko ahalmena Ordiziako alkate jauna den Igor Eguren Izagirre jaunari ematea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Adierazi du bidalitako hitzarmenean behin eta berriz Agirre bidea jartzen badu ere, Agarre bidea dela eta zuzenketa hori egingo dela; hitzarmenari buruz datu esanguratsuenak aipatu ditu, azpimarratuz

azkenean hitzez aspaldidanik zegoen konpromisoa hitzarmen batean jasotzea lortu dela, eta bihar sinatuko dela.

#### Santamaria jn.

Adierazi du burura etorri zaiola nola izan den proiektu honen istorioa eta esan du behin eta CAFek Upabi eremurako bere asmoak agertu zituenean, aukera ikusi zutela bide hau egiteko, gogorarazi du Ordiziak ez duela oraindik galiborik gabeko sarrera-irteerarik, eta bide hau ez bakarrik Malkasko, Urdaneta inguruko bizilagunentzat onura izango dela, baita Lazkao, Beasain, eta CAF inguruko hainbat auzoentzat ere, eta baita Ordiziara Beasaindik hainbat kotxe sartzen direnak hortik sartuko direla aurrerantzean. Jarraitu du esanez, bere garaian batzuk ez zutela sinesten proiektua honetan, eta pozten da 2014.urtean egi bihurtzea.

#### Alkate jn.

Adierazi du beraien aldetik berrestea betidanik sinetsi izan dutela proiektu honetan, eta areto honetan daudela horren hainbat lekuko, bi urte ta erdi kostatu dela Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lehen kontaktua izan zutenetik, hitzezko konpromezutik proiektua finantziatzeko hitzarmenera pasatzea, lanekin hasi aurretik terreno jabeekin adostasun batera iritsi behar dela eta lan hori pendiente dagoela, zalantzarik gabe hau da Ordiziarako sarrera nagusia bilakatuko dena, gainera etorkizun hurbilean beste proiektio batzuk dituen Beasain, Lazkao, Ordizia lotzeko, eta epe ertain batean Ordiziako Udalari ahalbideratuko diona datozen urteetan gutxienez San Bartolomeko irteera trakets hori hobetzeko.

#### Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du .

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 4)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **7.- Eskaerak eta galderak**

#### Asenjo jn.

Zabor bilketaren zerbitzuaren kostuari buruzko datuak eskatuz, Dubreuil jaunak egin duen eskaeraren harira, adierazi du behin eta berriro berretsi nahi duela bai alkate eta baita bere aldetik Sasieta Mankomunitateko kideak bezala, prestutasun osoa daukatela datu horiek emateko, behin eta datu

horiek prest daudenean. Kritikatu nahi duela aurrekoan EAJ eta PSE alderdiak emandako prentsurrekoan hainbat datu faltsu edo oker eman zituztelako nahita; alkateak emandako informazioaren arabera birziklatze tasa %78an gaudela jakinda, esan zenuten %76an gaudela, Legazpiko portzentajea %75<sup>a</sup> da eta ez zuek aipatu zenuen %70<sup>a</sup>. Aipatu zenutela eta honek min pixka bat ere eragin diola zeren eta prentsan eta Goierri Telebistan honela agertzen da: behin eta berriz galdera egin zenutela, eta kostata erantzun omen genuela, bai Igorrek eta bai berak ahal den egokien erantzuten saiatu zirenean, amorrazio eman ziola hori entzun zuenean; iruditzen zaio gai honekin birziklatze tasa hobetzea baino gizartearen haustura eta nahasmena sortu nahi dela, lortu egin da %78ko portzentajera iristea eta hori datu pozgarria bada edozeinentzat, ematen du batzuentzat guztiz alderantziz dela; berriro bere prestutasuna azaldu du taldeekin egoteko eta informazioa dagoen bezain laster emateko; azkenik galdera zuzen hau egin dio Santamaria jaunari, oraindik poltsa gutxi batzuk lurrean uzten dute, zuek jarrera hori babestu edo bultzatzen duzue?

#### Santamaria jn.

Adierazi du Asenjo jaunak emandako datu batekin geratzen dela, Legazpiko portzentaje tasa ez dela %70<sup>a</sup> baizik eta %75<sup>a</sup>, badakizue Legazpin sistema selektiboa erabiltzen dela, eta horrek esan nahi du bosgarren edukiontziaekin birziklatze portzentaje datu horietara ere iritsi daitekeela, esfortzu gutxiagoarekin, duintasunez, eta jendearentzat erosoago den sistema erabilita; zaborraren galderari buruz argi eta garbi erantzun dio beraiek ez dutela hori bultzatzen, eta inoiz ez dutela zabor poltsak lurrean uztera deitu.

#### Asenjo jn.

Adierazi dio pozten dela Santamaria jaunak emandako erantzunarekin, baina zuk hemen eredu bezala Legazpiko sistema jarri duzu, eta Legazpiko EAJk babestu du hitzez hitz lurrean zabor poltsak uztea, eta guztiz esanguratsua iruditzen zaio hain gertu dagoen herri batetik hemen jarrera desberdina izatea, bestalde adierazi du Legazpiko alderdi sozialistak ez duela babestu jarrera hori, bukatu du esanez prentsurrekoan Santamaria jaunak baieztatu zuela Legazpiko sistema merkeagoa dela, eta galdetu dio zertan oinarritzen den hori horrela dela justifikatzeko.

#### Santamaria jn.

Begi bistan dago sistema horrek baliabide gutxiago behar dituela, eta nahiz eta datuak ez eduki konfirmatu zen horrela dela; azkenik "konzientziaztea jendea" ideiarekin geratzen dela, eta Legazpin ikusi da hori izan daitekeela sistema bat portzentaje tasa horietara iristeko.

#### Dubreuil jn.

Asenjo jaunak adierazitakoaz pozten da, hilabeteak daramatzate informazio hori eskatzen eta lehenbailehen ematea espero du. Prentsurrekoan eman ziren zerbitzuko gastuei buruzko datuen inguruan, esan du ezin direla egiaztatu behin betiko datuak atera arte, Sporaren azterketan azaltzen diren datuak ditugu soilik. Zerbitzu gastuak aurkezten direnean laister jakingo da zein den sistemaren benetako kostua. Lurrean uzten den zaborrari buruz, berriz, gogorarazi du PNvk eta PSEk elkarrekin egindako agerraldi batean jendeari eskatu ziotela onartutako bilketa sistema betetzeko, eta hori ere argi utzi zuela PNvk. Bere ustez ezin zaie egotzi egiten diren arau-haustea, eta bukatu du esanez

ondoko herrietan eman diren koherentzia faltak, jarrera desberdinak ohikoak izaten direla, eta herri gehienetan gertatzen direla horrelakoak.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.